



ERANSKINA

TEKAZELEko kideentzako

2023ko HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

IVAPeko Berariazko ikastaroak

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko III. Plan Gidarian onartuta duen moduan, "hizkuntza prestakuntza" eskaintzea du bere helburu espezifikoaren artean.

IVAPek 2023. urterako hizkuntza prestakuntzako ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro horiek gainontzeko administrazioetara zabaldu ditu, eta Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak, Euskalduntze batzordearen oniritziarekin, eskaintza hori zabaltzea erabaki du.

IVAPek egindako eskaintza horretatik, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak, bukaeran, taula batean dagoen ikastaroen eskaintza egiten die TEKAZELEko langileei.

- Ikastaro bakoitzak bere **fitxa teknikoa** dauka IVAPeko webgunean, ikastaroaren berezitasunak eta bete beharreko baldintzak irakurtzeko.
- Hiru ikastaro mota daude:
 - A** aurrez aurrekoak
 - L** Lineakoak edo on-line
 - JB**. Jardun bikoia.
- **Eskariak egiteko epea: ekainaren 30etik uztailaren 18ra bitartean (biak barne).** Ez da onartuko epea kanpoko eskaririk. IVAPeko fitxa teknikoan agertzen den epea ez da kontuan izango; Errektoreordetzak barne antolakuntza egin behar duelako.
- Ikastaroen kostua Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak hartuko du bere gain, baina ez bestelako gastuak (joan-etorriak, materiala, etab.)

Eskaerak egiteko

Eskaerak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/2023-06-29-berariazko-deialdia>.

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoan. Berrespen hori UPV/EHUren erregistro elektronikoan erregistratuko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).



Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Onartua izateko baldintzak

- Eskatzaileak izendapen bat edo kontratu bat ikastaroaren bukaeran izan beharko du.
- Ezinbestekoa izango da zerbitzuburu edo nagusiaren txostena.
- Ikastaro bakoitzaren fitxa teknikoan agertzen diren bete beharreko baldintzak eskatzaileak bete egin behar ditu ikastaroa eskatu ahal izateko.
- Langile bakoitzak ezin izango du **ikastaro bat baino gehiago** eskatu urtero (urte naturala). Hala ere, langileak ikastaro bat baino gehiago eskatuko balu, errektoreordetzak onartzekotan, eskari gutxien egondakoan onartuko lioke.
- Kontuan izanda IVAPek oso plaza gutxi eskaintzen dituela administrazio guztietarako, IVAPek ezingo ditu jasotako guztiak onartu. Beraz, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzea arloko Errektoreordetzak **eskariak onartzeko irizpideak** honako hauek izango dira:
 - ❖ Lehenetsuna lehenengo heltzen direnek izango dute.
 - ❖ Ez dira onartuko egun eta ordu berean beste ikastaro batean daudenen eskariak. Alegia, 2023/2024 ikasturtean zehar IVAPeko liberazioaren bat baldin badaude (5 ordukoa edo 2 ordukoa), edota hobekuntza ikastaroren bat egiten baldin badaude.
 - ❖ Ezin izango da ikastarorik errepikatu hurrengo deialdietan, halakorik balego.
 - ❖ Ez dira onartuko, aurreko urtean ikastaroren bat eskatu eta gero egin ez dutenek errektoreordetza honetara inolako abisurik eman gabe.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDEZTA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA
E INTERNACIONALIZACIÓN

Taldeen antolakuntza:

- Ikastaroak IVAPek ematen ditu. Beraz, fitxa teknikoan agertzen diren leku eta orduetan izango dira.
- Ikastaroa egiteko onartuei, ikastaroak irauten duen denbora (**soilik**) emango die unibertsitateak. Horretarako [2022ko abenduaren 2ko gerentearen erabakiak, administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldi, lanorduen kontrol, opor eta baimenei buruzko 2023ko behin-behineko zirkularren adierazita dagoen moduan, bere 14.1.3. atalean dioena beteko da \(hobekuntza ikastaroei ematen zaien tratamendu bera emanez\).](#)

Onartuen eta baztertuen jakinarazpenak:

- Posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesatuei onartuta dauden ala ez.



Ikastaroak

A: Aurrez aurrekoa

L: Lineakoa edo on-line

JA: Jardun bikoia.

Tipo	Curso	Lugar	Ficha técnica
A	2. HE: birziklatze ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
A	2. HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
JB	2. HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Moodle eta Zoom	Ficha técnica
A	2. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
JB	2. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Moodle eta Zoom	Ficha técnica
A	3. HE: birziklatze ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
A	3. HE: birziklatze ikastaroa	Donostia - San Sebastián (Gipuzkoa)	Ficha técnica
A	3. HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
JB	3. HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Moodle eta Zoom	Ficha técnica
A	3. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
JB	3. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Moodle eta Zoom	Ficha técnica
A	4. HE: birziklatze ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
A	4. HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
JB	4. HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Moodle eta Zoom	Ficha técnica
A	4. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
JB	4. HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Moodle eta Zoom	Ficha técnica
A	Genero ikuspegia hizkuntza politikan	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
A	Hizkera argia administrazioko testuetan	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
A	Euskara ingurune digitalean	Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)	Ficha técnica
A	Itzultzaile neuronala testugintzan: kontuan izan beharrekoak	Bilbao (Bizkaia)	Ficha técnica
L	Administrazioan komunikazioa erraztu	Linea	Ficha técnica